

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

17 positibo berri
2.414 positibo guztira*

1.622 hildako EAEn
6 UCIn, EAEn

NAFARROAN

27 positibo berri
5.523 positibo guztira
Sendatuak EAEn: 18.463

Bailarako 20.625 herritar bozkatzera deituta gaur, aldaketekin eta segurtasun neurri zorrotzekin

Hauteslekuak eta mahaiak berrantolatu eta gomendioak eman dituzte Astigarragan eta Hernanin, Eusko Legebiltzarrerako bozkatzeko.

URUMEA HAUTESKUNDEAK

Gaur egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, apirilaren 5erako deialdia atzeratu ondoren. EAEko 1.794.313 biztanle daude bozkatzera deituta; eta Urumea bailaran, 20.625 herritar dira bozkatzeko eskubidea dutenak: 4.827 astigartar, 15.327 hernaniar eta 471 erefiotzuar.

Nobedadea da hauteskunde-

ak data hauetan egitea, aurreneko aldiz bozkatzeko baitute herritarrek udaran, Eusko Legebiltzarrerako; baina beste hainbat nobedade ere izango dira, pandemiak eraginda.

Horietako bat da, hauteslekuak eta mahaiak berrantolatu egingo dituztela, jende pilaketak saihesteko. Hernanin, kiroldegia prestatu dute bozkaleku bezala, eta bertan eman beharko

dute botoa, hainbat herritarrek: Biterin egoten ziren bi mahai, eta Haur Eskolako beste hiru, bertara mugitu dituzte. Gainera, Gabriel Zelaia eraikinetik, beste bi mahai kendu dituzte, eta Langile ikastolaren Bidebietako egoitzara mugitu. Aldaketen berri zehatzago jakiteko, begiratu kronika.eus edo hernani.eus.

Eta Astigarragan ere, bada aldaketarik: Herri Eskolan bozkatzeko dute aurreneko sekzio-koek, baina kiroldegian izango dute bozkalekua, bigarren eta hirugarrenekoek. Bi aparkaleku ere egokituko dituzte bozkatzera

joateko, ikastolako patioan eta udaletxeko plazan.

Segurtasun neurriak, eta zenbait gomendio

Egoeragatik, segurtasun neurri bereziak hartuko dira: maskarillarekin joan beharko da bozkatzera, eta gel hidroalkoholikoa ere egongo da sarreran, eskuak garbitzeko, sartzean eta ateratzean. Seinaleei eta bertan daudenen jarraibideei kasu egin beharko zaie, eta gomendatu dute, jende gehien ibiliko den orduak saihestu, eta botoa etxetik eramatea. **K**

Kale irakurraldia gaur, Milagrosatik

HERNANI LITERATURA

Kale irakurraldia antolatu dute gaurko, *Desobediencia* izenburupean, Hernaniko kaleetan. Milagrosatik abiatuko dira, eguerdiko 12:12etan.

Xaboi tailerra, gaur

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Gaur egingo dute, Urumea Herrigunean, xaboi tailerraren bigarren saioa. 18:30etan izango da, eta tokia mugatua denez, izena eman behar da aurretik, Instagrameko [@koloreztatu](https://www.instagram.com/koloreztatu) kontura mezu pribatua idatzita. Erromero xaboa eta bere eratorriak landuko dituzte.

Denontzat Race, uztailaren 25ean

HERNANI OBSTAKULO PROBAK

Uztailaren 25ean egingo dute Denontzat Race obstakulo probaren hirugarren edizioa, Hernanin. Plazak mugatuak izango dira, eta zabalik dago izenematea. Apuntatzeko eta probari buruzko informazio guztia jasotzeko, idatzi mezua inscripciones@denontzat.com helbide elektronikora.

Lehiaketan azken astea, kirol sailak

HERNANI JARDUERA FISIKOA

Bi lehiaketa antolatu ditu Jarduera Fisiko eta Kirol Sailak, herritarrentzat: *Buru adi-euskaraz ari-4 sari* helduentzat, eta *Hernanin barrena!* Altxorren bila haurrentzat. Dagoeneko banatu dituzte hainbat sari, eta uztailaren 16ra arte izango da parte hartzeko aukera. Helduek, jarduera fisikoari buruzko zortzi galdera erantzun behar dituzte, labur.eus/PotCD helbidean. Eta haurrek, Maialen Lujanbioren bertsoa osatu beharko dute, herrian barrena dauden pistei segika, helbide honetan: labur.eus/TtZWk.

Joseba Barandiaran gogoan, 42 urteren ondoren ere

Omenaldia egin zioten ostiralean, Zipotza elkartearen aurrean. Egia, justizia eta erreparazioa eskatu zuten, beste behin.

ASTIGARRAGA OMENALDIA

42 urte bete ziren atzo, Joseba Barandiaran astigartarra tiroz hil zutela Donostiako manifestazio batean, Iruñeko San Fermintan izandako istiluengatik eta German Rodriguezen heriotzagatik, poliziaren tiro batez hila bera ere, uztailaren 8an.

Eta 42 urteren ondoren, astigartarrek erakutsi zuten ez dutela ahaztuko Joseba Barandiaran, eta ezta gertatutakoa ere. Omenaldia egin zioten ostiralean, Zipotza elkartearen aurrean. Barandiaranen irudi bat jarri zuten, Ernesto Che Guevara iraultzaile argentinarraren beste irudi baten ondoan; eta Iruñeko peñen zapi gorriak haien

inguruan. Lore eskaintza egin zioten bertaratutako guztiek, omenaldiaren bukaeran.

Baina aurretik, Barandiaranen garaikideak ekarri zituzten aurreneko lerrora, eta Xabier Urdangarin alkateak hartu zuen hitza: «zaila egiten zaigu guri, zuek bizitako garaia ulertzea; 18 urteko gazte bat tiroz hil, eta 42 urteren ondoren jarraitzea egia argitu gabe, justizia egin gabe, eta erreparaziorik gabe». Eta ekitaldia bukatzeko, Agin Laburuk eskaini zituen bi bertso; horietako bat, hauxe:

*Eta Joseba degu herri hontako izen nahiz ta berari buruz maiz ez geran aritzen urteen poderiyuan ari naiz nabaritzen nola ahalengintzen diran ahots batzuk ixiltzen baina segitzen degu atari hontan biltzen memorian bizi dana sekula ez da hiltzen. **K***



Lore eskaintza egin zioten omenaldiaren bukaeran, Joseba Barandiarani.



Aureskua dantzatu zieten, Joseba Barandiaranen garaikideei.


MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.



Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

ISABEL

Janari denda



Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

sulabe

Valella okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10



OGI BERRI

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Kontxa etxeberría 2
Astigarraga
943 12 64 24



ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

GAUR Giro nahasiagoa izango dugu gaur. Lainotuta egongo da zerua tarteka, baina ostarteak ere zabalduko dira. Ezegonkortasunagatik, ordea, zaparrada trumoiak ere bota ditzake, egunean zehar. Tenperaturak gora egingo du. **Min.14° / Max.25°**

BIHAR Egonkortera egingo du bihar, eta giro lasaia izango dugu. Goizean goizeko behe-lainoa desagertuta, zerua urdin geratuko da. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta pikka bat frexkatuko da tenperatura. **Min.15° / Max.22°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Tanco** Idiazabal, 39 (Umieta) **943 550942** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Karmen jairik ez da izango Kaxkoan, ostegunean

Egun osoko festa bertan behera uztea erabaki du Kaxko elkarteak, COVID-19a dela eta.

HERNANI KAXKO ELKARTEA

Egun seinalatua izaten da uztailaren 16koa, Karmen eguna, Heraniko Kaxkoan. Baina ez da ospakizunik izango bertan, aurtengoan: Karmen jaiak bertan behera uztea erabaki du Kaxko elkarteak, COVID-19aren eraginez bizi dugun egoeragatik. Gauzak horrela, ez dira egingo urtero egun horretan antolatu ohi diren ekintzak: merkatariei omenaldiak, alkate izendapena, haurrentzako jolasak, kaleko jokoak eta karta jokoak, sardin jatea, balkoi ederraren lehiaketa... Eta ez dute jarriko Kaxkoko Ama Birjina ere, urtero bezala, Karkaban.

Erabaki horrek, herriko gainerako festetan hartutako il-dotik jarraituko du. Orain arte, bertan behera geratu dira Florida-Etxeberri, Osiñaga eta Martindegi auzoetako jaiak, San Joanak, eta baita Ereñotzuko San Antonioak ere.

Bere jarduera etengo du Kaxko elkarteak, urtarrilera arte

Era berean, Kaxko elkarteak jakinarazi du, bere jarduera eten eta atseden hartuko duela, pandemiaren eboluzioa zein den ikusi bitartean. Hortaz, Plaza Berriko liburutegia ere ez dute martxan jarriko, hartu beharreko segurtasun neurriek ez dutelako ahalbidetzen.

Printzipioz, urtarrilean helduko die Kaxko elkarteak berriro, bere ekimen eta egitasmoei. Eta bitartean, elkartearekin harremanetan jarri nahi duenak, eskura dauka posta elektronikoa: kaxkoelkarte@gmail.com. **K**



Aritz Zubiri pelota zaila jasotzen, errebotetik bueltan. Argazkia: Maialen Andres

Finalean izango dira Zubiri eta Urriza

Orain arteko maila onena erakutsita, mendean hartu zituzten Ansa II eta Larrañaga, partidu ederrean (28-35).

GOIZUETA-HERNANI ERREMONTEA

Final haundirako pasea lortu zuten atzo, semifinal ederrean, Aritz Zubiri goizuetarrak eta Javier Urrizak. 28-35 menderatu zituzten Ansa II eta Larrañaga, eta txapelaren bila ariko dira datorren larunbatean, Juaneña eta Endikaren kontra, Galaretaren 50garren urteurreneko txapelketan. Horretarako, baina, bere maila onena erakutsi behar izan zuten. Urriza nagusi zela, behin eta berriro zabaldu zituzten tarteak (2-8, 14-21 edota

18-25), baina beti bueltatu ziren partidura gazteak; eta 12-11 aurreratu ondoren, 28-29 ere jarri ziren, tanto bakarrera. Orduan, ordea, sakea huts egin zuen Larrañagak, eta hortik aurrera, zuzenean joan ziren beteranoak 35garren tantora. 23 tantorekin bukatu zuen Urrizak, eta jokoan sei eta sakez hiru eginda Zubirik; bina akats egin zituzten.

Partiduen bukaeran, Zubirik nabarmendu zuen «lan asko» egin behar izan zutela, irabazteko: «bi-hiru tanto egin, eta tarte lortzen genuen, baina berriro arrimatzen ziren. Peloteatuak izan dira tantoak, eta oso gogorra izan da. Urrizak txapelketako partidu onena jokatu du, eta bera horrela dagoenean, diximulatuta pasatzen gara atzelariak», adierazi zuen. Finalerako «gogo haundiarekin» dago. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA
Jose Antonio Zapiain Errazkin
Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -

Bere ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko uztailaren 12an

IRAGARKI MERKEAK

- 17 urteko neska prestua abuztuan edozein lana egiteko prest. Deitu: 621 056 818**
- Bi gelako pisua alokatzen da Hernanin. Informazio gehiagorako bidali email bat: sorgin7@gmail.com**
- Emakumea lan bila: edozein lan egiteko prest. Deitu: 609 209 161**
- 19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. Deitu: 688 697 001**
- Garajea alokagai, ambulatioaren ondoan, kotxe batentzat. 90 euro hilean. Argi gastua, urtean 60 euro. Deitu: 943 55 04 71 - 615 009 926**
- Pisukide baten bila nabil Hernanin.** Maskotarik gabe. Interesatuak deitu zerbaki honetara: **630 271 757**
- Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Deitu: 618 119 781**
- Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILA ETOBRARAKO MUNTATZALEA,** esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
- LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**
- Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

Etxean nagusi Donostiarra, Pastorrekin

HERNANI ARRAUNA

Donostian jokatu zuten estropada atzo, Eusko Label ligan; eta etxean nagusi izan zen Donostiarra, Xabat Pastor hernaniarra traineruan zela. 11 segunduren aldearekin irabazi zuten, Santurtzi bigarrenaren aurretik. Ligan hirugarren daude, eta Zierbenan dute laugarren jardunaldia gaur, eguerdiko 12:00etan hasita.



Nesa X SIGNAL, Buruntzaldean

URUMEA PUBLIERREPORTAJEA

Oraindik COVID-19aren mehatxupean gauden estresaldi honetan, salmenta eta kontsumoa areagotu da Orfidal, Valium, Trankimazin, Diazepan eta errezetarik behar ez duten beste produktu batzuetan.

Estresari, larritasunari, antsietateari eta lo egin ezinaren nahasmenduei lotutako arazoak, dira etxean egotearen, laneko arazoaren eta arazo ekonomikoaren ondorio, eta baita pandemiaren beraren ondorio ere.

Tratamendu gisa, batez ere antiolitikoak eta antidepressiboak erabili dira, beste sistema batzuetan alterazioak eta mendekotasun arazoak sortu ditzaketanak.

Kimera Fisioterapia zerbitzu paregabe eta eskusiboa eskaintzen dugu, kontsumo masibo hori murriztu eta ezabatzeke gai dena; **Nesa XSignal** teknologian oinarrituz, oreka neurologikoari lagundu eta gure egunerokotasunari hobeto eta energia gehiagorekin aurre egin ahal izateko. Ez da jatorrizko arazoa konpontzen, noski, baina bai haren ondorioak, eta horrela, osasuntsuago egongo gara.

Edozein eratako mina edo alterazioa dagoenean, desorden bioelektrikoa dago; beraz, desorden hori normalizatzeak lagunduko digu mina murriz-

ten eta berriro lasaitzen.

Egoera honek ekarri duen beste arazoetako bat, loaren kontziliazio txarra eta kalitate falta dira. Nahiz eta ordu asko lo egin, gaizki aurkitzen gara. Berrogeialdiaren ondoren egin berri diren ikerketetan ikusi da biztanleriak, oro har, bere ohiko batez bestekoa baino gehiago lo egin duela, baina ez duela atseden gehiago hartu, faktore askorengatik. Horrengatik, hainbat produktu azkar erabili dira, baina ez hoberako.

Nesa XSignal teknologiaren bidez, 6 elektrodo aplikatzen dira gorputzaren puntu espezifikoetan, orkatilako eta eskullarru bakoitzean; eta elektrodo direkzionatzaile bat, efektu orokorrak lortzeko. Emaitzak agerikoak eta objektiboak dira, prozesuaren kronikotasunaren araberak, baina lehen saioetatik.

Saioak 30 minutu eta ordubete artekoak dira, eta gorputzean ez da nabaritzen mikrokorrikerik, maiztasun baxuarekin lan egiten baita.

Nesa XSignal terapia erabili ahal izateko kontraindikazioak dira, taupada-markagailuak, haurdunaldia eta elektrizitatearen fobia.

Kimera Fisioterapia saio indibidualak edo bonu ezberdinak erosteko aukera eskaintzen dugu, zure osasuna modu ezin hobean eta ez inbaditzailan berreskuratzea ahal izateko.

Erreserbatu zure hitzordua Fisioterapiako 3 zentroetako edozeinetara deituz, Whatsapp bidez edo online.

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

• 638 421 060 •

Hernani - Astigarraga - Donostia